

HIZLARI FAMATUAK

Deskribapena: Martin Luther King agertzen da lehenengo “I have a dream” diskurtsoa botatzen eta ondoren, Gandhi, Hitler, Lenin, Dolores Ibarruri, Kennedy eta Superman euren diskurtsoa botatzen ere.

Kike (off ahotsa): Martin Luther King-ek bestelako amets bat eduki zuen eta mila bederatziehun eta hirurogeita hiruan “I have a dream” historiako diskurtsorik ezagunenetarikoa bota zuen. Baina hogeigarren mendeak beste hizlari ezagun asko utzi dizkigu: Gandhi, Hitler, Lenin, Dolores Ibarruri, Kennedy eta Superman besteak beste. Denak beren diskurtsoa jendaurrean defendatzeko gai.